

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak gatazka sozialean dauden adingabeentzako egoitza-arreta bikoiztuko du, aurrekontua % 70 handituz

Laster batean lizitatuko duen kontratu berriak, 18 milioi lau urterako, beraien familiekin bizi ezin duten nerabeentzako arreta berrantolatzen du

Asteazkena, 2016.eko uztailak 27


Nafarroako Gobernuak 29 plaza gehiago jarriko ditu (25etik 54ra) gatazka sozial handian dauden adingabeentzako egoitza-arreta emateko, gora egiten ari den baliabide horri aurre egite aldera; beraien familiekin bizi ezin duten 12 eta 18 urte arteko haur eta nerabeentzat da.

Xede horretarako, lau urterako 18 milioi euro bideratzea aurreikusten da, BEZa kanpo, hau da, urteko terminoetan, egungo kopurua % 70 handituko da: 2,4 milioi euro xahutu da 2015ean, eta 2017rako 4,1 milioi gastatzea aurreikusten da.

Premisa horrekin eta Gobernuak asteazken honetako bileran baimendu ondoren, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak baliabideak kudeatzeko laguntza-kontratua laster lizitatuko du, eta haiek berrantolatu egingo dira premia-zentroko gainokupazioaren arazoa konpontzeko edo adingabeei arreta hobea emateko, beraien behar psikosozialen arabera.

Zehazki, Behaketa eta Harrera Zentroak (COA), arreta-behar askorekin iristen diren premia-zko zerbitzua, 15 plaza ditu gaur egun, haietatik 5 Zolinan eta beste 10 Beloson, nahiz eta zenbaitetan zentro horretako okupazioa 20ra iristen den.

COA arintzeko, bertan sartzeko sistema aldatuko da eta egoitzetako plazak areagotuko dira, bertako eskasiak adingabeak zentroan finkatutako gehieneko 60 egunak baino denbora gehiagoz egotera behartzen baitu. Sarrerari dagokionez, hiru modulu sortuko dira, ezaugarri psikosozialei, bizi-ibilbideari, jokabide-tipologiari eta esku hartzeko eragileari erreparatuz.



Plaza-kopurua igotzeak adingabeen behar psikosozialak hobeto artatzen lagunduko du.

Gaur egun, egoitza-harrerarako, barnetegi-araubidean, Gobernuak 10 plaza ditu. Berrantolaketaren barnean baliabidea bi tipologiatan zatitzea jasotzen da: oinarrizko (ARB) eta espezializatua (ARE), azken hori adingabeen legearen erreforma berriak ezarri du.

Zehazki, 18 plazarekin, 8 sortu berriak, ARBk bizikidetzarako arazorik ematen ez duten adingabeak artatuko ditu. Eta ARBk, 8 plaza berrirekin, zantzu disozial edo disruptibo larriak dituzten adingabeentzat izango da, arreta handia eta oso banakakoa behar dutenak. Modulu honetan hartzeko baimen judiziala beharko da.

Bide-laguntza emateko zerbitzu berria

Azkenik, 16 urtetik beherako bide-laguntza sozialeko zerbitzu berria sortzen da, bizitza autonomia egiteko prestatzen ari direnak; izan ere, familiaren etxera ezin dira itzuli.

Programa hori diru-laguntzen bidez egingo da, kolektibo horretarako Gizarte Zerbitzuen Saileko prestazio bermatua adibidez (elikadura, etxebizitza, arropa eta beste batzuen oinarrizko beharrak), eta adinez nagusiak izatean, bermatutako errenta batek eta bide-laguntzako baliabideek ordeztuko zuten adingabe bakoitzaren komunitatearen testuinguruan, bide irekian. Departamentuak arlo horretan boluntariora txertatzea ere proposatzen du, egokitasunaren adierazpenaren ondoren, denboran luzatu daitekeen baliabide sozial gisa.

Kontratu berria

Gaur egun gatazkan dauden adingabeak babesteko zerbitzu hori Ilundáin Harritz Berri fundazioak kudeatzen du. Gobernuak kontratu berria urteko azken hiruhilekoan indarrean sartuko dela espero du, indarraldia 2017ko abenduaren 31 arte izanik, eta epe hori gehienez beste lau urtez luzatu daiteke. Gobernuak gehienez 5,48 milioi euroko gastua baimendu du 2016 eta 2017 ekitaldietarako (1,37 2016an eta 4,12 2017an). Aurreikuspen horren arabera, kontratuaren balioa 17.981.480 euro izango da (BEZa kanpo).

Babesa emateko II. Plan Integrala

Gatazka-egoerarako egoitza-harrera berrantolatzea Nafarroako Gobernuak Nafarroako familiari, haurrei eta nerabeei babesteko politiketan egindako trantsizioan sartzen da (Babesa emateko II. Plan Integrala), paradigma-aldaketa bat ekartzen dutena: eskubide subjektiboaren aitortzari eta defentsari emandako laguntzatik, kaltearen esku hartze erreparatzailetik prebentzioa eta sustapena bultzatzera eta "kostu sozial"-aren kontzeptutik "inbertsio sozial"-era.

Testuinguru horretan, beste neurri batzuk ezartzen ari dira: familia-harrera handitzea egoitza-aukera gisa (hartzaileen erabateko lan profesionala –titulazioa eskatuko da–); adopzio-prozesuek porrot egitea ekidindo duten prebentzio-neurriak indartzea; egoitza-harrerako neurrien aurreko eta ondorengo etapetan babesteko prebentzio-programak areagotzea; bitartekotza, orientazio eta familiako topagunearen programak lizitatzea; eta gazte-justiziako programa abian jartzea beste pertsona, familia edo hezkuntza-talderen batekin bizikidetzako bide irekiaren neurrien barnean.

Gatazka eta zailtasuna

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema bi azpisisitemen baitan antolatzen da: babesarena eta erreformarena (faltak edo delituak egitea).

Babesteko azpisisitemak zailtasun-egoerak jorratzen ditu (familien zabarkeria handia, tratu txarrak, abandonatzea, sexu-gehiegikeria, eskaletza eragitea, laneko esplotazioa) eta gatazka-egoerak, hau da, egokitzapen eza larriko egoeran dauden adingabeek beraien buruei edo beste pertsona batzuei eragin diezazkieketen kalteak: familiako etxetik ihes egitea, substantzia toxikoen kontsumoa, eskola-absentismo jarraitua, indarkeria filioparentala, jokabide autolitikoak...

Adingabea dagoen babes ezako egoeraren larritasunaren arabera, erreparaziorako eta pronostikorako bere gurasoen edo tutoreek emandako laguntza-mailaren arabera, babesa funtsean zaintzaren bitartez egiten da (familia-ingurunean) edo banaketaren bidez (behin-behinekoz edo behin

betikoa), familien edo eqoitzako harrera-bideak erabiliz.